

ARALAR ALDERDI POLITIKOA HERNANIN AURKEZTU DUTE

Aralar: "Independentistak gara eta ezkerri nortasun berri bat eman nahi diogu"


■ Aralarko ordezkarien esanetan, aurrera begira beren helburua da ezkerreko sensibilitateak biltzea ■ Hauteskundeetara aurkeztuko da Aralar, eta Zutik-ekin batera joateko lanean ari da Gipuzkoan.

ARALAR alderdi politikoa ostegunean aurkeztu zuten Hernanin. Ernesto Merino hernaniarrak eta Iñaki Irazabalbeitia Aralarren planteamendu ideologikoak aurkeztu zituzten. Aurkezpena Biterin izan zen eta ikastaro gela bete egin zen. Ekitaldi hasieran, Aralarko kideek azken egunotako polizia operazioak eta Egunkaria ixtea salatu zituzten.

Euskal Herriko Errepublika Federala

Ernesto Merinok azaldu zuen Aralarrek Euskal Herriko Errepublika Federala defenditzen duela, eta errepublika horrek herritarren borondatea behar zuela oinarri. Lurralde-tasunaren kontzeptuari dagokionez, Aralarrentzat Euskal Herria da sujeta politikoa, baina, erabakia herrialdeetan egotea defenditzen dute. Zentzu horretan, errepublika ez dute zertan zapzi herrialdeek batera osatu, eta Aralarren ustez prozesu hori pausoka eman liteke, herrialde bakoitzak autodeterminazio bidez erabaki ahala.

Iñaki Irazabalbeitia azaldu zuen Aralarren ezkerreko



Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merino Biterin, Aralar Hernanin aurkezten.

ikuspegiari pisu handia eman zaiola eta emango zaiola. Irazabalbeitiaren esanetan, Aralarren asmoa ere ez da ezkerreko abanguardia izatea. "Ezkerreko sensibilitate asko daude, ezkerre anitza da eta Aralar planteamendu horietako bat izango da. Ez da dogmatikoa izango, eta ezkerri beste nortasun bat eman nahi diogu. Gure planteamenduaren oinarri nagusiak dira demokrazian sakontzea eta demokrazia parte hartzailea bultzatzea". Aralar hauteskunde listak zabalik aurkeztearen aldekoa da, he-

rritarrei, pertsoneri botoa emateko, alderdiei eman beharrean. Herritarrek erabaki haundietan parte hartzeko aukera izatea ere defenditzen du alderdi sortu berriak.

Zutik-ekin elkar hartuta

Iñaki Irazabalbeitia Hernanin esan zuen Aralar aurkeztuko dela datozen Udal eta Foru Hauteskundeetara. Bere esanetan, Aralar Gipuzkoan Zutikekin batera aurkezteko lanean ari da, bide horretan, eta bi zuzendaritzen baiezkoa bakarrik falta da. Indarrak

biltze hori oso positiboa iruditzen zaio Aralarko buruari, aurrera begira ezkerreko beste mugimenduekin elkar hartuta lan egin nahi dutelako, eta bere ustez Zutik-ekin batera aurkeztea pauso bat izango litzateke bide horretan.

Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merinok hernaniarrak animatu zituzten "proiektu gazte eta indarrez betetako" horretan parte hartzea, bai lanerako, bai listak osatzeko eta abar. Aralarrekin kontaktuan jartzeko: 943-297749. e-maila: gipuzkoa@aralar.net. □

Iñude eta Artzairen konpartsa bihar

URUMEA ikastolak bihar anteztuko du Iñude eta Artzairen konpartsa, urtero bezala. Bihar goizeko 12:00etan aterako dira ikastolatik 120 lagun inguru, eta Kaxkoan barrena ibiliko dira. □

Zuhaitz Eguna gaur eta bihar Aparrainen

ASTEBURU honetan Zuhaitz Eguna izango da Hernanin, Udalak eta Mendiriz Mendi elkarteak antolatuta. Guztira 500 arbola landare sartuko dituzte Aparrainen. Umeak gaur 09:00etan aterako dira Atsegindegitik; helduak bihar 08:00etan Gudarien plazatik. □

Judo erakustaldia gaur eta txapelketa bihar

GAUR eta bihar judo jardunaldiak egingo dituzte Hernaniko kiroldegian. Guztira 250 ume inguru izango dira. Gaur erakustaldia egingo dute 16:30etan eta bihar Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute 11:00etan. □

Ur jolasak bihar

UR jolasak izango dira bihar kiroldegiko igerilekuan. Ume guztiek joan ahal izango dute 10:30etatik 12:30etara. □

Peña Otañon asanblea

PEÑA Otañok urteroko asanblea egingo du bihar. Bi konbokatoria izango dira: lehenengoa 10:00etan eta bigarrena 10:30etan. □

Pala txapelketa Hernanin

HERNANIKO pala txapelketa gaur hasiko da. Guztira 18 bikotek eman dute izena eta gaur 4 partidu jokatuko dira: Aitzol-Urko/Ibai-Iñaki; Oskar-Iban/Xabi-Iñigo; eta Egaña-Mitxelena/Iñigo-Angel. Partiduak 16:30etan hasiko dira kiroldegiko frontoian. □



Abenduko uholdeak ezkeretik Zubipen ezin izan da partidurik jokatu.

FUTBOLA

Hernani-Touring, Zubipen bihar

ZUBIPEKO futbol zelaia konpondu dute eta asteburu honetan etxeko partiduak hor jokatuko dituzte Hernaniko taldeek. Gorengo taldeak igandean 16:30etan jokatuko du, bere kontrario zuzen baten aurka. □

Telemar
ANTENAK
Antena parabolikoen instalazioa
Indibidualak eta kolektiboak
Teledistribuzioa
Telefonia mugikorra
Kontserbazioa eta mantentimientua
ETXEKO ELEKTROGAILUAK
Telefonia fijoja eta mugikorra
Movistar

CANAL+
SATTELITE
CANAL DIGITAL
Kale Nagusia 7
Tel.:943 33 26 00
Elkano kalea 13
Tel.:943 55 33 99
943 33 00 60

IRUBIDE JATETXEA
Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

Antziola-Motor
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

18 urte Hernanin, zuekin
Ford-eko gama guztiarekin
Modelo guztiak

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteaz zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN KONTRAKO OPERAZIOA

Manifestazioa gaur Donostian

■ Kontseiluak deitu du manifestazioa eta Antiguotik aterako da gaur 17:00etan.

OSTEGUNEAN Euskaldunon Egunkaria itxi eta 10 lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak. Operazioa salatzeke manifestazioa egingo da gaur Donostian, Kontseiluak deituta. Euskal Herriko hainbat alderdi, sindikatu, elkarte eta taldek bat egin du manifestazioarekin eta Hernaniko hainbat taldek ere bai.

Atxilotuak inkomunikatuta Egunkariaren kontrako operazioan Hernanin Pello Zubiria atxilotu zuten, Euskaldunon Egunkariako lehenengo zuzendaria eta orain gutxi arte Argiako zuzendari izana. Zubiriarekin batera bederatzi lagun ere atxilotu zituzten, gehienak Egunkariako zuzendaritzan ibi-

liak edo dabiltzanak: Juan Mari Torrealdei, Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Xabier Oleaga, Fermín Lazkano, Luis Goya, Txema Auzmendi, Inma Gomila eta Xabier Alegria.

Hamar atxilotuak inkomunikatuak dauzkate oraindik eta zenbait komunikabidek esan duenez Madrilan dauzkate. □

JASOTA BEZALA

Egunero euskaraz

Euskaldunon Egunkariaren garrantzia guretzat ez da txikia. Guretzat esatean, euskara ikasteko sekulako ahalegina egiten dugun euskaldunoi buruz ari gara, baita euskara ama hizkuntzatzat dugunok ere. Zergatik?

Eguneroko berriak bizi nahi dugun hizkuntzan irakurri ahal ditugulako. Bizirik nahi dugun hizkuntzan diogu, eta ez museoan Europako hizkuntzarik zaharrena izan zela azaltzen duen txokoan galduta.

Lehendabizikoz izan dezakegulako Arabako euskaldunen berri, edo jakitea daukagulako Zuberoako biztanleei zer gertatzen zaien frantsesez eta gaztelerez idatzitako prentsa irakurri gabe.

Garrantzitsua da Euskaldunon Egunkaria, orain arte ez zegoen hizkera sortu duelako: eguneroko euskarazko prentsa idatzia. Eta

honek, gainera, euskararen normalizazioa azkartu du. Maila guztietako hamaika zalantza argitu behar izan da, hurrengo egunean kioskoan egongo bazen.

Horrez gain, ez zegoena sortzean, euskaraz bizitzeko lagun eskubidean pausu garrantzitsua eman du Euskaldunon Egunkariak. Bestela, zertarako ikasi euskara bezalako hizkuntza gutxitua, irakurri ere egin ezin bada? Egunkaria irakurri ikas dezakegu euskara. Halaber, euskara ikasteko beharra senti dezakegu; ez dena hiltorian edo hilda baitago.

Etxea eraikitzen sekulako ahalegina egin dugu. Lehen lokalik ere ez zegoen. Egunkaria fin-fina, mehe-mehea zen. Albiste gutxi batzuk eta kitto. Baina, beste edozein egunkariaren prezioan erosten genuen, gustura eta pozik; zabala ez bazen ere osoa zela sinesten genuen-

lako. Osoa lurraldez, osoa hizkuntzaz, osoa euskaldun guztiontzat izanik.

Pixkanaka handitu egin da. Orri gehiago, gehigarriak, kolorea, web orria... Orainsu lokalak berriro dituzte eta gure berriak kokatu, euskal kulturaren babesean... Hala bada, egun batean, bat-batean, egingako ahalegin guztia ezerezean geratu da. Lokalik eta azpiegiturarik gabe, gure izaera zalantzan jarri da berriz ere, oraingoan Euskaldunon Egunkaria kriminalizatuz.

Langileek beharrez jarraituko dutela agindu dute. Eta guk, ostera, irakurtzen jarraituko dugula agintzen diegu, hori baita gure konpromisoa. Munduan euskara hutsez egiten den egunkari bakarra delako euskaldunona.

Axun Larburu
Hernaniko AEKren izenean

Azken atxilotetak eta Euskaldunon Egunkaria ixtea salatu ditu Udalak

UDALAK azken atxilotetak eta Euskaldunon Egunkaria ixtea salatzea erabaki zuen atzoko Gobernu batzordean. Azken egunotan 31 lagun atxilotu izana salatu dute eta etengabeko eraso bortitzea jaso dugula estatuko botereen alde-tik "euskaldun izateagatik, gazte eta iraultzaile izateagatik". Atxilotuetako bi -Maria Kolera eta Pello Zubiria- hernaniarrak direla gogoratzen dute eta Zubiria Udal langile baten senarra dela.

Egunkariaren proiektuarekin bat egiten du Udalak eta proiektu honekin aurrera egitera dei egin du. Atxilotutako lagunen egoerarekin kezka azaldu dute "poliziaren eskuetan dauden bitartean bizi duten indentsio egoera bistakoa baita". "Une latz hauetan" elkartasuna azaldu dio senide eta lagun guztiei.

Udalak gertaera hauek salatzeke antolatzen diren ekintzetan parte hartzera dei egin du. □



LEHENENGO URTEBETETZEA

JUAN MARTIN IDARRETA GOÑI

2002ko otsailaren 4an hil zen.

Juan Martinen senitartekoei oroigarri meza eskaini nahi diogu eta ezagutu zenuten guztiok bertara etorri zaitezten gonbidatzen zaituztegu.

Oroigarri meza, **bihar igandea, otsailak 23**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Hernanin, 2003ko otsailaren 22an.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 006666
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

☛ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
☛ Gaez: Tanco Urnieta. San Juan 36
☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

Komertziala behar da Donostialderako. Kotxea beharrezkoa. Deitu: **661 52 38 39**
Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: **943 55 10 92**
Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu: **Tel.: 943 33 19 18 (Arratsaldeko 18:00-20:00)**
Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAREN konbokatortia. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: **943 44 45 09**
AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**
GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**
BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: **943 44 45 09**
TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: **943 44 45 09**
ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**
UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdiatarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**
Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdiatarako. ADOZ: **943 444509**
BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdiatarako. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**
Txofer, elektrizista, kontserje, operario, ... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: **943 444509**

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak	Non	Noiz
Goren	Hernani-Touring	Zubieta	Bihar, 16:30	Kronika Txapelketa			
Emak.	Antonano-Hernani	Astizubi	Gaur, 17:45	Esk. 2na	Urtzi-Ugaitz/Txubi-Koilo	Tibseta	Gaur, 16:00
1. Errejl	Ostadar-Hernani	Mixelin	Gaur, 17:30	Esk. 2na	Mujka-Egarea/Huizi-Villar	Tibseta	Gaur, 16:30
Gazt. Na.	Antiguoko-Hernani	Berri	Gaur, 15:30	Esk. 2na	Zelha-Urdangarin/Ker-Sergio	Tibseta	Gaur, 17:00
Gazt. Oh.	Anatasuna-Hernani	Txeriba	Bihar, 16:30	22 urtez azpiko Txapelketa			
Kad. Oh.	Hernani-Touring	Zubieta	Gaur, 16:30	Final 1/2	Lasa-Zabala/Zabala-Lanate	Kio He	Bihar, 11:00
Kad. 2.	Hernani-Guztekoa	Zubieta	Gaur, 11:30	Final 1/2	Alvarez-Lanate/Enebenea-Ama	Kio He	Bihar, 11:00
Haur Oh.	Antiguoko-Hernani	Berri	Bihar, 10:30	Hernaniko Pala Txapelketa			
ERRUGBIA							
1. L. Na.	Hernani-Duango	Landae	Bihar, 12:00	Ligila	Aizol-Urko/Dai-Baki	Kio He	Gaur, 16:30
Eus Kop	Zarauz-Hernani	Asti	Gaur, 16:00	Ligila	Oskar-Dan/Xabi-Berjo	Kio He	Gaur, 17:30
Jub. Euskalselekzioan 7 heman		Aste	Gaur, 10:00	Ligila	Egarea-Mixelin/Berjo-Angel	Kio He	Gaur, 18:30
Kad. Euskalselekzioan 7 heman		Izun	Gaur, 10:00	EHko, Gipuzkoako eta Udaberri txapelketak			
Infan. Lag	StHendaya-Hernani	Hendaia	Gaur, 10:30	Final 1/2	Inbaunondo/Mantzidor-Maitte	Inbaur	Gaur, 16:00
Aleb. Lag	StHendaya-Hernani	Hendaia	Gaur, 10:30	Paleta	Ramontxo/Hoz-Manchobas	Hondar	Bihar, 16:00
MAHATTENISA							
1. L. Naz.	CTM Coslada-Hernani	Madril	Gaur, 16:00	Paleta	Azatana 2/Txubi-Lujanbb	Aiza	Bihar, 11:00
1. L. Naz.	Guadalupe-Hernani	Madril	Bihar, 11:00	Paleta	Azatana 1/Buntazan-Antzabalg	Aiza	Gaur, 20:00
Auton	Hernani-Etsaak Zugape	Aste	Bihar, 10:00	Pala Mot	Kuku/Lujanbb-Galaza	Kazte	Gaur, 22:00
Gipuz	Hernani-EbadiB	Izun	Gaur, 16:30	Eskuz 2	Gaskon-Ssebastian/Iunpe	Kio He	Gaur, 15:30
BOLEBOLA							
Kadet	Langile Hernani-Lezaban	Kio He	Gaur, 09:30	Esk 2 Trin	Gaskon-Aizpuma/A He Zahana	Gaska	Gaur, 19:30
Jub Nes	Hernani-Fortuna	Kio He	Gaur, 09:30	Esk 2 Trin	Alvarez-Sasua/BeharZana	Gaska	Gaur, 19:00
Jub Mut	Gas Hernani-Galakaio	Derio	Gaur, 10:00	Jub Trink	Ramontxo/Suharniazustabanena	Izun	Gaur, 15:30
Jub Mut	Gas Hernani-Rekahe	Derio	Gaur, 12:00	Jub Trink	Melzumtuta/AitorGonobategi	Gaska	Gaur, 16:30
WATEPOLOA							
Eusk nes	Hernani-UPNA	Kio He	Gaur, 13:00	Kadeteak	Andape/Ramos-Amegi	Usurbil	Gaur, 19:00
2. Eusk	Hernani-Txinistari	Kio He	Bihar, 13:00	Kadeteak	Abeamendi/FndzGostiza-Ojel	Oxati	Bihar, 11:00
				Kad. Trink	AritzAmege/BerataIzpiarte	Gaska	Gaur, 16:00

TOLARE SAGARDOTEGIA

eizmendi

Maixa Eizmendi

Osiñaga Auzoa - Tel. 943 556 405 - Mobilak 616 450 380 - HERNANI

HORBEL jatetxea

Bokatak, pintxoak, razioak, platerak, entsaladak, sandwichak, hanburgesak

Etteraino eramango dizugu.

Eskatu!

Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

GALARRETA FRONTOIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Larrea - Aizpurua II / Juaristi - Etxeberria II
2. partidua: Iñigo - Aizpuru / Bitoria - Iriarte
3. partidua: Urretbizkaia I-Auzmendi / Agirresarobe-J.Etxeberria
4. partidua: Kalonge - Badiola / Bereziartua - Urko